

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatea, S.A. (Demuporsa)****Portugaleteko Udalaren Kirol-Sozietatea, S.A.-ren araudiaren behin-behineko onespena eta jendaurrean erakustea.**

Portugaleteko Udalaren Kirol-Sozietatearen Administrazio-Kontseiluak 2017ko abenduaren 21ean eginiko bilkuran behin-behinean onetsi zuen zerbitzuen araudi berria. Beraz, 30 egunez egongo da jendaurrean eskuragarri, nahi izanez gero alegazioak egin ahal izateko. Aipatutako epean alegaziorik egon ezean, araudia behin-betiko onetsiko da izapide gehiagorik egin gabe.

ZERBITZUEN ARAUDIA**1. XEDAPEN OROKORRAK**

1.1. Portugaleteko Udalaren Deportiva S.A., aurrerantzean Demuporsa Sozietatea izango da. Bere helburua da Udalaren titulartasuna duen Portugaleteko udalaren eremuan dauden kirol-instalazioak administratu, kudeatu, sustatu, garatu, kontserbatu, mantentzea eta haien erabilera bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako atazez arduratzea. Halaber, Portugaleteko udalaren eremuan dauden kirol-instalazioetako jardueren garapena bere gain hartuko du kirola eta kirolariak sustatzeko asmoz. Horretaz guztiaz gain, kirol-lehiaketa mota guztiak, arlo fisiko-ludikoa mantentzekoak eta aisialdirakoak ere eginkizun izango ditu.

1.2. Araudi honek helburutzat du kirol-instalazioetako erabiltzaileen erabilera-baldintzak arautzea. Instalazioetako kudeaketa eta administrazioaz Demuporsa arduratuko da instalazioak gobernatzeko eta administratzeko ahalmena baitu. Horretaz gain, instalazioetan egiten diren jardueren erabilera ez ezik, programazioa, zuzendaritza, ikuskapena eta kudeketa ere bere gain hartzen ditu.

Araudi honen pean honako instalazio hauek daude:

- Pando Aisia.
- Zubi-Alde kiroldegia.
- Txurruka kaiko udal igerilekuak.
- Los Llanos kirolgunea.
- Rivas futbol-zelaia.

1.3. Demuporsak eskubidea du xedapenak edo ebazpenak egiteko Araudia argitu, aldatu edo garatze aldera. Araudia bera eta araudi espezifikoak hala ordutegiak nola tarifak jendearen eskuragarri egongo dira.

1.4. Araudi honek arautzen dituen kirol-Instalazioetako zerbitzuak erabiltzeko tarifa aplikagarriak Demuporsaren Administrazio Kontseiluak urtero onetsiko ditu. Izan ere, indarrean jarriko dituzte, bestelako adierazpenik ez badago, urte bakoitzeko urtarrilaren batean.

1.5. Araudi honetako artikuluren bat ez betetzeak instalazioetatik kanporatua izatea ekar dezake.

1.6. Debe katuta dago instalazioetara abereak sartzea. Itsu-txakurrak salbuespenetzat joko dira, betiere egoki identifikatuta badoaz, beren lana egiten ari badira eta higiene eta osasungarritasun baldintzak betetzen badituzte.

1.7. Debe katuta dago instalazioen barruan bizikletak, patinak, skateak edo bestelako ibilgailu edo tramankuluak erabiltzea. Tramankuluok erabiltzen ikasteko ikastaroetan, ordea, baimenduko da erabiltzea, baina ikastaroa egiten den gunean besterik ez.

1.8. Debe katuta dago jendea eremu mugatuetara sartzea.



1.9. Guztiz debekatuta dago instalazioetako eremuak erabilera edo onura pribaturako eskolak emateko erabiltzea, idatziz baimendutakoak izan ezik.

1.10. Erabat debekaturik dago kirol instalazioen barnean erretzea.

2. ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2.1. Eskubideak:

2.1.1. Instalazioetako langileek heziketaz eta adeitasunez tratatu behar dituzte erabiltzaileak.

2.1.2. Instalazioak erabiltzeko arauari eta indarreko tarifei jarraituta, erabiltzaileek zerbitzu guztiak gozatu ahal izango dituzte.

2.1.3. Erabiltzaileak programak ezarritako egun eta orduetan erabiliko dituzte instalazioak. Nolanahi ere, programazioak berak behartuta ala ezinbestez, egoerak berak bultzatuta, baldintzak ezeztatu edo aldatzeko aukera egongo da. Hori gertatuz gero, erabiltzaile kalteak 24 orduko aurrerapenez horren berri emango zaie salbu eta arrazoi justifikatuak badira.

2.1.4. Erabiltzaileak zerbitzu eta eremu osagarriak (aldagelak, komunak eta abar) erabili ahal ditu araudiak dioenarekin bat etorritik.

2.1.5. Erabiltzaileak instalazioak, altzariak eta kirol-materiala egoki erabiltzeko moduan izan behar ditu.

2.1.6. Erabiltzaileak egoki iritiz gero, instalazioetan eskuragarri dauden orrietan, kexak, iradokizunak edo erreklamazioak ere aurkeztu ahal ditu.

2.2. Betebeharrak:

2.2.1. Instalazioak, materiala eta altzariak behar bezala erabiltzea. Halaber, saihestuko da instalazioak hondatzea eta beste erabiltzaile batzuen osasuna zein eskubideak urratzea.

2.2.2. Instalazioak ahalik eta garbien mantentzea. Hori dela eta, debekaturik dago hondakinak eta gauzak eremu barruan botata uztea.

2.2.3. Erabiltzaile orori eta instalazioetako langileei errespetua zor zaie. Era berean, langileek esandako oharrei jaramon egin behar zaie, bere eginkizuna eremuan eta aretoetan egiten diren jarduerak ikuskatzea baita.

2.2.4. Aukeraturiko zerbitzuari edo jarduerari dagokion prezio publikoaren abonamendua ordaintzea, ezarritako epeen barruan.

2.2.5. Kirol-unitateak alokatzeko ordutegiak betetzea.

2.2.6. Erabiltzaileak instalazioak utzi beharko dituzte parte hartu duen edo izena eman duen jarduera amaitutakoan. Aldageletara sartzea dago jardueraren ordutegia baino hamabost minutu lehenago. Irteera, gehienez, ordutegia amaitu eta handik hogeitun minutura egingo da.

2.2.7. Arauok ez betetzeagatik, erabiltzaileek zabarkeriaz jokatzegatik edo instalazioak ekipamenduak eta zerbitzuak txarto erabiltzeagatik, istripurik edo akatsik balego, Demuporsak ez du hori guztia bere gain hartuko erabiltzailearen aurrean.

2.2.8. Demuporsak erabiltzaileei gomendatzen diren departamentu honek antolatutako edozein jarduerari ekin aurretik, osasun-azterketa egitea. Izan ere, Demuporsak hori eskatzeko eskubidea badu, egoki iritiz gero.

3. «URA» ABONAMENDUAREN BALDINTZAK

3.1. Eskatzen duten guztiak abonatu ahal izango dira, horretarako baldintzak onartu eta betetzen badituzte. Abonamenduak denbora-bitarte honetakoak izan daitezke: urtekoa (urtarriletik abendura), udakoa (ekainetik irailera) edo hiru hilekoa. Hiru hilekoetako abonamenduetan alta izapidetzen den hilaren egunetik aurrera zenbatuko dira.

3.2. Abonamendu familiarra hauexek egin dezakete: senar-emazteek edo antzeko harreman egonkorra dutenek eta abonamendua egiten duten urtean 25 urte beteko du-



ten seme-alaba ezkongabeek, familiaren etxean erroldatuta badaude. Lau urtetik behar-rakoek, ordea, ez dute karnetik beharko.

3.3. Familia ugariak familia ugariaren karneta aukeztu beharko dute, abonamenduaren urtean gaurkotuta.

3.4. Desgaituek Foru Aldundiak edo beste erakunde baten agiriaren bidez egiaztatu beharko dute %33 baino handiagoko desgaitasuna dutela.

3.5. Ura abonamendua eginez gero, Txurruka kaiko eta Pando Aisiako igerilekuak erabil daitezke, baita Pando Aisiako termak ere.

3.6. Abonamenduak banku-helbideratzearen bidez ordainduko dira. Ordainagiria giratu baino lehen eta beti ere hilaren 9a baino lehen, kreditu-txartelaz edo dirutan ordaindu ahal izango da instalazioetako saltoki-terminaletan.

3.7. Urteko eta udako abonamenduak automatikoki berrituko dira, aurreko urteko baldintza eta modalitate berberak dituztelarik. Hiru hileko abonamendual behin euren aldia igarota balio gabetuko dira.

3.8. Abonamenduaren modalitatearen aldaketa edo baja, abonamenduaren aldia amaitu baino lehen egin beharko da. Erabiltzaileak aldaketa hori egiten ez badu, ulertuko da hurrengo denboraldian ere abonatua izaten jarraitu nahi duela.

3.9. Bajak edo modalitatearen aldaketak webgunearen edo apparen bidez eskatu beharko dira, edo, bestela, instalazioetako saltoki-terminaletan.

3.10. Arrazoa edozein delarik ere, abonatuaren kuotari dagokion ordainagiria itzultzeak abonatuaren baja ekarriko du eta abonatuak bajan jarraituko du, kuota hori eta ordainagiria itzultzeagatik ezarritako gainkargua ordaindu arte.

3.11. Kuotarik ez ordaintzeak berez ekarriko du Demuporsak antolatutako ikastarorik edo jarduerarik egin ezin izatea, zorra kitatu arte behintzat.

3.12. Behin aldia hasita, baja eginez gero, ez da dirua itzuliko, ez eta inolako konpentsaziorik emango ere.

4. JARDUEREN BALDINTZAK

4.1. Baldintza orokorrak:

4.1.1. Ohiko jardueren programa irailatik ekainera bitartekoa da. Uztaileko eta abuztuko programazioak ordutegi eta jarduera bereziak edukiko ditu.

4.1.2. Ohiko jardueren programan izena ematen duen erabiltzaileak jardueran altan jarraituko du, baja eskatu arte edo ekainean kurtsoa amaitu arte. Iraupen zehatza duten jarduerak egiten dituzten erabiltzaileak baja izango dira jarduera amaitzen denean, eta berriro eman beharko dute izena horretarako ezarriko diren egunetan.

4.1.3. Fitness eta Pando tarifen hiru hilabeteak alta izapidetzen den egunetik aurrera zenbatuko dira. Ekainaren 1etik abuztuaren 10era bitartean egindako fitness abonamendu hiruhilekoei udako abonamenduaren prezioa aplikatuko zaie.

Hileko fitness eta Pando tarifak alta izapidetzen den egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean zenbatuko dira.

Urteko Fitness tarifa urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa da.

Familiako Fitness tarifa: abonamendu familiarra izateko hauxe kontuan hartuko da: senar-emazteak izatea edo hori bezalako beste harreman egonkor bat izatea eta 25 urtera arteko seme-alaba ezkongabeak (abonamenduaren urtea barne) eta etxeko helbidean erroldaturik daudenak. Aldia familia-buruaren kontura fakturatuko da.

4.1.4. Hilean jarduera bakarrean hilaren 16tik aurrera egiten diren inskripzioei jarduneko hilabeteko kuotaren %50 kobratuko zaie. Hurrengo hilabetean berez berrituko zaio eta hileko ordainketa osoa kobratuko diogu jardueran baja egitea eskatu arte.

4.1.5. Jarduera bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta, egin ahal izateko, parte-hartzaileen gutxieneko kopurua ez badago. Erabiltzaileek ez dute Demuporsaren konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango. Fitness tarifako orduak eta jarduerak okupazioaren arabera aldatu ahal izango ditugu.



4.1.6. Jarduerak ezartzen diren ordu eta egunetan egingo dira, jaiegunetan eta instalazioa itxita dagoen egunetan izan ezik.

4.1.7. Jarduerak banku-helbideratzearen bidez ordainduko dira eta hilaren 10ean kobratuko dira. Ordainagiria giratu baino lehen eta beti ere hilaren 9a baino lehen, kreditu-txartelaz edo dirutan ordaindu ahal izango da instalazioetako saltoki-terminaletan.

4.1.8. Bajak webgunearen edo apparen bidez eskatu beharko dira dagokion inprimakia betez, edo, bestela, instalazioetako saltoki-terminaletan.

4.1.9. Jardueraren kuotaren ordainagiria itzultzeak, arrazoia edozein delarik ere, ekarriko du ikastaroan baja izatea eta erabiltzaileak bajan jarraituko du, batetik kuota eta bestetik ordainagiria itzultzeagatik ezarritako gainkargua ordaindu arte. Kuotarik ez ordaintzeak berez ekarriko du Demuporsak antolatutako ikastarorik edo jarduerarik egin ezin izatea, zorra kitatu arte.

4.1.10. Hiruhileko jardueretan behin hasita, lehen hogeit hamar egunetan baja eskatuz gero, aldiko zenbatekoaren %60 itzuli beharko zaio. Denbora-tarte hura igarota, ez zaio erabiltzaileari ezer itzuliko.

Martxoaren 31 baino lehenago eskaturiko urteko fitness tarifaren baja eskatuz gero, abonamenduaren zenbatekoaren %70 jasotzeko eskubidea izango du erabiltzaileak. Denbora-tarte hura igarota, ez zaio erabiltzaileari ezer itzuliko.

4.1.11. Hilabeteko jardueretan, behin hilabeta hasita, baja eginez gero, ez da dirua itzuliko, ez eta inolako konpentsaziorik emango ere.

4.2. Igeriketa ikastaroen arauak:

4.2.1. Aldageletan jendetzarik egon ez dadin, 6 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute. Eskola edo entrenamendu-ordua izan baino 15 minutu lehenago sartuko da aldageletara. Hor hasiko da erabiltzen ikastaro zein jardueretarako prestatutako aldagela. Jarduera hasi arte ez dago bainu-eremuan sartzetik.

4.2.2. Behin umea prest egonda, igerilekurako pasabidera joango da. Hor haurra arduradunarekin geratuko da eta berak eramango du ur-eremura. Geroago, laguntzaileek instalazioetatik egin behar dute alde.

4.2.3. Ez da komeni haurraren gurasoak igerilekuan egotea haiei begira, eskola dagoen bitartean. Izan ere, gehienetan haurrek arreta galtzen dute eta monitoreari ez diote kasurik egiten.

4.2.4. Eskola amaitutakoan, gurasoek umeen bila toki berera joan beharko dute. Erabat debekaturik dago instalaziotik bainu-eremurantz joatea.

4.2.5. Eskola amaiturik, laguntzaileak, haurra dutxatu nahi badu, oinetako egokiak (txankletak) jantzita igaro beharko du dutxetara.

4.2.6. Behin eskola amaiturik, haurrak igerilekutik alde egin behar du. Beraz, ezin da hor olgetan geratu salbu eta abonatu-karneta ez badu eta heldu batekin lagunduta ez badago.

4.2.7. Monitoreak jolaserako tartea baimentzen badu, ikastaroaren barruan egongo da sartuta.

4.2.8. Hiruhilabete bakoitzeko data jakin batzuetan, parte-hartzaileei balorazio-orri bana emango zaie. Orri horretan azalduko dute haurrak ikastaroan aurrera egin duen ala ez, edota ikastaroa errepikatu behar duen ala hurrengora igaroko den.

4.2.9. Ikastaro, eskola edo txapelketetako erabiltzaileen laguntzaileek ez dute sartzetik ez aldageletan ezta igerilekuko hondartzara ere. Salbuespena da 6 urtetik beherakoak badira. Kasu horretan aldageletara heldu batekin joango dira baina inolaz ere, igerilekuko hondartzara.

5. INSTALAZIOETARA SARTZEA

5.1. Instalazioetako sarreretan dauden tornuetatik sartuko da, harpidedun edo erabiltzaile txartelaren edo sarrera edo tiketaren bidez. Lau urtetik beherakoek beren ardu-



radun den adinez nagusiko batekin joan beharko dute eta ez dute sarrera ordaindu behar izango.

5.2. Derrigorrezkoa da sarrera gordetzea instalazioetan egon bitartean. Eremuaren barruan istripurik gertatzen bada, dena idatziz jasota geratu behar da. Behin instalaziotik aterata, berriz ere berau erabiltzeko, dagokion sarrera ordaindu beharko da.

5.3. Demuporsak baimendutako edozein langilek eskatu ahal izango du txartela edo sarrera.

5.4. Karneta norbanakoarena eta besterezina da. Titularra ez den beste batek erabiltzeak badakar berekin hilabete batez karneta kentzea zigor gisa. Gainera, Demuporsak ez du abonamendua ordaintzeko eskubiderik. Arau-haustea berriro eginez gero, hutsigitte larritzat joko da eta dagokion legez, zigortua izango da.

5.5. Karneta galdu edo hondatuz gero harrera-gelako langileei jakinarazi beharko zaió berehalakoan. Ondoren, langileek karnet berria egingo diote erabiltzaileari aurretik ezarritako tarifa ordainduta.

5.6. Txartelek ikastaroetarako, jardueretarako eta udal instalazioetan erreserbak egiteko bidea ematen dute. Erabiltzaileak baja ematen badu ere, txartela gorde egin behar da.

6. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

6.1. Arau orokorrak:

6.1.1. Kirolariak kirol eremuetara kirol bakoitzerako oinetako eta arropa egokiekin sartu beharko dira. Kaletik ekarritako oinetakoak ezingo dira erabili.

6.1.2. Debe katuta dago baloiekin edo beste objektu batzuekin jolastea aldageletan, pasabideetan, harmailetan eta kirol eremutzat hartzen ez diren eremuetan.

6.1.3. Debe katuta dago instalazioetan kristalezko ontziak sartzea.

6.1.4. Jantzi-aldaketak aldageletan soilik egingo dira; debe katuta dago horretarako komunak edo kirol eremuak erabiltzea.

6.1.5. Debe katurik dago erretzea, edatea edo jatea instalazio barruan. Hala eta guztiz ere, kafetegi-gunean jan eta edan daiteke baita kanpoko igerilekuetako solarium-gunean ere.

6.1.6. Erabiltzaileak instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik eratorritako kalteen arduradunak izango dira.

6.1.7. Saihestu jende pilaketak instalazioetarako sarreretan: harrera, pasabideak, aldagelak, etab. Ez egon denbora luzez eremu horietan, behin erabilera amaituta.

6.2. Aldagelak eta armairuak:

6.2.1. Debe katuta dago aldageletan objektuak zein arropa uztea. Demuporsak ez du instalazioan, edozein arrazoi dela eta, gal edo honda daitezkeen objektuen ardura hartuko.

6.2.2. Debe katuta dago aldagela eta komunetan bizarra moztea, depilatzea, ilea tindatzea, azazkalak moztea eta antzerakoak egitea.

6.2.3. Badira erabilera askeko armairuak, horien erabilera titularrak instalazioen barruan ematen duen denborara dago mugatuta; hortaz, instalazioetatik ateratzean, hutsik eta libre utzi behar dira.

6.2.4. Eguna amaitzean, armairuak aztertu eta hustu egingo dira eta gauza guztiak gordetegian geratuko dira. Hori dela eta, giltzarrapoa hausteak ez du Demuporsaren aldetik kalte-ordainketarik ekarriko.

6.2.5. Armairuen erabilerak ez dakar berekin gordailu-kontraturik, ezta beren edukaren gaineko erantzukizunik ere, instalazioak ez baitu ezagutzen bere bezeroek bertan gordetzen dutenaren balioa eta garrantzia.

6.2.6. Ezin da dutxetara hurbildu kaleko oinetakoekin. Sei urtetik beherakoei edo modu autonomoan mugitzea zailtzen dien urritasuna edo minusbaliotasuna dutenei la-



guntzen dieten pertsonak aldageletan sartu ahal izango dira. Haurrak dutxatu behar bada, derrigorrezkoa izango da oinetako egokiak erabiltzea.

6.2.7. Ez bihurritu bainujantziak lurrean; erabili konketak edo dutxetako saretak.

6.2.8. Higiene-arrazoiak direla kausa, ezin dira haurren gurditxoak sartu. Haietarako berariazko tokietan utzi beharko dira.

6.2.9. Debekatuta dago aldageletatik bustita ateratzea.

6.2.10. Familiako kabinak banaka edo taldeka erabiltzeko dira. Hamasei (16) urtetik beherakoek ezin dituzte kabinak erabili heldu batekin ez badaude.

6.2.11. Zazpi urtetik beherakoak beste sexukoak aldagelan sar daitezke baldin eta heldu batekin badaude. Zazpi eta hamabi urte bitarteko haurrak norberaren sexuari dagokion aldagelan sartuko dira. Dena delarik ere, helduenetan ere sartzea dute heldu batek lagunduta.

6.2.12. Helduek ezin dituzte haurren aldagelak erabili ez dutxatzeko ezta arropa aldatzeko ere.

6.3. Igerileku estalien erabilera arauak:

6.3.1. Igerilekua jendearentzat zabalik dagoen orduetan, gutxienez sorosle titulu bat egongo da bertan.

6.3.2. Sorosleak ziurtatuko du bete egiten direla aipatutako arauak eta, orokorrean, zerrenda honetan egon ez arren, segurtasuna, higiena eta instalazioaren funtzionamendu egokia mantentzen laguntzen dutenak ere bai.

6.3.3. Derrigorrezkoa da igerilekuaren ontzietara sartzeko aurretik dutxa hartzea.

6.3.4. Derrigorrezkoa da bainujantzia eta txanoa erabiltzea. Umetxoek uretako pixoihalak eraman beharko dituzte.

6.3.5. Gomendagarria da txankletak edo bustitzeko oinetakoak erabiltzea.

6.3.6. Guztiz debekatuta dago erabiltzaileak kaleko arroparekin edo oinetakoekin sartzea. Instalazioetako langileak, bertan egon daitezen beharrezkoa denean, kaleko oinetakoentzako plastikozko zorroekin sartuko dira.

6.3.7. Debekatuta dago igerilekuaren inguruan korrika ibiltzea, joko edo jolas arrisksuetan aritzea, kortxo-iletan esertzea edo etzatea, irteerako plataformetatik salto egitea, zeharkako norabidean igeri egitea, baita beste erabiltzaileen aldeko erabilera egokia eragozten duen bestelako ekintzarik burutzea ere.

6.3.8. Debekatuta dago uretan betaurreko graduatuak eta eguzkitakoak erabiltzea, eta koltxonetak, baloiak, neoprenozko jantziak, hegatsak, eskuzorroak eta abarrak sartzea.

6.3.9. Debekatuta dago gaixotasun infekziosoak edota transmiti daitezkeenak dituzten pertsonak igerilekura sartzea.

6.3.10. Kirol jardunerako materiala nahi dutenek sorosleari eskatu beharko diote eta, behin erabiltzen amaituta, itzuli eta bere lekuan utzi beharko dute.

6.3.11. Indarreko araudia betetze aldera, igerilekuak urtean behin itxiko dira, egoera higieniko-sanitario egokia mantentzeko.

6.3.12. Ikastaro eta jardueretarako gordetako eremuak errespetatu egin beharko dira. Kaleen okupazioa instalazioko iragarki taulan egongo da ikusgai.

6.3.13. Plisti-plasta ontzien erabilera 5 urtetik beherakoentzat dago erreserbatuta, eta uneoro adinez nagusiko arduradun batek lagunduta egongo dira.

6.3.14. Hamabi urtetik beherakoak adinez nagusiko arduradun batek lagunduta egon beharko dira, haurren igerilekuan igeri egiten denean.

6.3.15. Guztiz debekatuta dago gainerako erabiltzaileak gogait ditzaketen irrtiak edo soinua erreproduzitzeko gailuak erabiltzea. Musika erreprodukzioa beti pertsonala izango da; hau da, entzungailuak erabilita.

6.3.16. Igerileku estalien uraren tenperatura Euskadiko igerilekuen erregimen tekniko-sanitarioko araudiak agintzen duena izango da.



6.3.17 Hamabi urtetik beherakoak adinez nagusiko arduradun batek lagunduta sartuko dira igerilekuetara, eta hau adingabearen jardueratik eratorritakoen erantzulea izango da.

6.3.18. Gomendagarria da bainua hartu ondoren dutxatzea, igerilekuetako ura azala lehor dezaketen produktuekin tratatzen baita.

6.3.19. Kortxo-ilarez banatutako kaleetan igeri egiten dutenek eskuinetik eta gurutatu gabe ibili beharko dute beti, beste erabiltzaileen jarduna ez oztopatzeko.

6.3.20. Debekatuta dago uretara abiada hartuta edo airean itzulipurdiak eginez botatzea. Ekidin joko edo jolas eta jardun arriskutsuak.

6.3.21. Errespetatu uretan sartzeko eta uretatik ateratzeko ordutegia.

6.4. Igerileku irekien erabilera arauak:

Igerileku estalien erabilera aplikatzen diren arauz gainera, hurrengo arau zehatzak ere aplikatuko dira.

6.4.1. Instalazioetako denboraldiaren irekiera datak eta ordutegiak behar bezala jakinaraziko dira.

6.4.2. Baldintza klimatologiko kaskarrak egonez gero, ez da sarreraren dirua itzuliko.

6.4.3. Solarium eremuan erre eta jan egin daiteke, gainerako erabiltzaileen erabilera egokia eragotzi gabe. Hondakinak zakarrontzietara bota beharko dira. Erre egin daiteke horretarako paratutako guneetan.

6.5. Fitness gimnasioko erabilera arauak:

6.5.1. Gimnasia sartu ahal izango dira egoki inskribatutako eta dagokion hileko kuota ordaindu duten 15 urtetik gorakoak.

6.5.2. Higiene arrazoiak direla eta, derrigorrezkoa da pertsona bakoitzak toalla bat erabiltzea, aurretik izerditutako makinak erabiltzea ekiditearren.

6.5.3. Erabiltzaileek, saioa edo ariketa bukatutakoan, garbitu egin beharko dute erabilitako aparatua eta eremua.

6.5.4. Debekatuta dago kirol poltsak, nezeserrak eta beirazko ontziak dituzten edariak gelan sartzea.

6.5.5. Derrigorrezkoa da kirol arropa eta oinetako egokiak erabiltzea, kaletik ekarritakoen bestelakoak, jarduera eroso egin ahal izateko.

6.5.6. Gomendagarria da baliozko objekturik ez ekartzea; hots, erlojuak, medailak, lepokoak, eskumuturrekoak, eraztunak, dirua, etab. Instalazioak ez du bere gain hartuko gal daitezkeen baliozko objektuen erantzukizuna.

6.5.7. Guztion mesederako, erabiltzaileek egoki zaindu beharko dituzte gailuak eta makinak.

6.5.8. Ariketa segiden arteko atsedenaldietan, makina libre utzi beharko da, gainerako erabiltzaileek erabili ahal izateko.

6.5.9. Ariketa amaitutakoan, erabilitako material guztia bere tokian utzi beharko da.

6.5.10. Erabilera amaitutakoan, hustu makinak.

6.5.11. Begiraleak esandakoa aintzat hartu beharko da uneoro.

6.6. Cyclo indorr jardueraren arauak:

6.6.1. Guztiz debekatuta dago behin eskola hasita gelan sartzea.

6.6.2. Gomendagarria da eskola hasi baino bost minutu lehenago bizikletan igota egotea.

6.6.3. Debekatuta dago gelan kirol poltsak edo motxilak sartzea.

6.6.4. Higiene arrazoiak direla eta, derrigorrezkoa da esku-oihalak erabiltzea eta eskola amaitzen denean bizikletetako izerdia garbitzea.

6.6.5. Gomendagarria da botilatxo bat ur eramatea.

6.6.6. Debekaturik dago luzaketa-ariketak egitea bizikletak erabili bitartean.



6.6.7. Behin eskola amaiturik bizikleta galgarik gabe utzi behar da eta eskulekua eta jarlekua laxoan.

6.7. Lehorgailuen erabilera:

6.7.1. Ile-lehorgailuak ilea lehertzeko baino ez dira.

6.7.2. Ez erabili lehorgailuak bainujantziak, oihalak, txankletak edo bestelakoak lehertzeko.

6.7.3. Behin erabiltzen amaituta, itzali lehorgailua eta jarri bere lekuan.

6.7.4. Ez utzi umeei lehorgailuekin jolasten.

6.7.5. Debehatuta dago barreiagailuak erabiltzea.

6.8. Boulder eta rokodromoaren erabilera arauak:

6.8.1. Boulderra edo rokodromoa erabili ahal izango dute kuoten ordainketa egunean daukaten edota sarrera ordaindu duten adinez nagusiek. Adingabeak adinez nagusiko batek lagunduta egon beharko dira uneoro.

6.8.2. Derrigorrezkoa da eskalatzeko oinetakoak erabiltzea. Rokodromoan derrigorrezkoa da eskaladarako materiala: arnesa, soka, express zintak...Erabiltzaileek behar duten material osoa ekarri behar dute.

6.8.3. Rokodromoaren erabiltzaileek ezingo dituzte heldulekuak aldatu. Instalazioak langile batzuk izendatuko ditu lan hori egiteko. Erabiltzaileek euren iradokizunekin lagundu ahalko dute, berauek harreran utziz.

6.8.4. Heldulekuren bat hausten bada, harreran utzi beharko da, aldatua izan dadin. Era berean, edozein arazo gertatuz gero, harreran jakinaraziko da.

6.8.5. Boulderraren azpian jarritako koltxonetak Bizkaiko Mendizaleen Federazioaren gomendio eta iradokizunei jarraiki ezarri dira; hortaz, guztiz debehatuta dago hauek lekuz aldatzea.

6.8.6. Rokodromoa beste lagun batek egoki ziurtatutako eskalada bertikala egiteko da. Derrigorrezkoa da bide bakoitzean prestatutako segurtasun puntuak erabiltzea. Zeharkaldiak egin ahal izango dira soilik goiko bideetan eskalatzailerik ez dagoenean, eta ezingo da eskuekin lehen seguru lerroa gainditu.

6.8.7. Pausoak edo zeharkaldiak markatzeko, esparatrapua erabili ahalko da. Guztiz debehatuta dago paneletan edo heldulekuetan beste edozein metodorekin markak zuzenean egitea.

6.8.8. Gomendagarria da federatzea eskalada egiteko. Istripuren bat gertatuko baltiz, Demuporsak ez luke bere gain erantzukizuna hartuko.

6.8.9. Demuporsak erabilera arau hauek betetzen ez dituen oro kanporatzeko eskubidea izango du.

6.9. Tenis, Padel eta Pilotalekua erabiltzeko arauak:

6.9.1. Lau kirolarik baino gehiagok ez dute sartzerik salbu eta Demuporsak baime-na ematen badie.

6.9.2. Pistetara ezin da gurditxoekin edo bola-saskiekin sartu eta 10 pilota baino gehiago ezin dira erabili. Jarduerarako, berariazko pilotak, palak edo erraketak erabili beharko dira.

6.9.3. Erabiltzaileek teniserako eta padelerako sareak ezin dituzte ukitu. Sareak tenkatzeko instalazioko langileengana jo behar da.

6.10. Solarium-a nola erabili:

6.10.1. Debehatuta dago 18 urtetik beherakoentzat.

6.10.2. Erradiazio ultramoreek kalte larriak eragin ditzakete azalean eta begietan; solariumean denbora luzez eta askotan egoteak azalaren zahartze goiztiarra eragin dezake, hala nola azaleko minbizia izateko arriskua areagotu; azalari sorturiko kalteak itzulezinak dira.



6.10.3. Derrigorrezkoa da babesteko betaurrekoak jartzea beltzaran jartzeko gailuek igorritako erradiazio ultramoreen aurrean, begietako lesioak ekiditeko, esaterako, kornearen hantura edo kataratak.

6.10.4. Erradiazio ultramoreak bereziki arriskutsuak izan daitezke azal oso zuria duten pertsonengan, eta ez dituzte hartu behar beltzaran jarri gabe erretzen diren pertsonen, intsolazioa jasaten dutenek, azaleko minbizia izan dutenek edo minbizi hori izateko aukera handiagoa dutenek.

6.10.5. Hemezortzi urtetik beherakoek debekatuta dute izpi ultramore artifizialen pean egotea, eta ez da gomendagarria haurdunentzat.

6.10.6. Botika jakin batzuk hartzea eskatzen duten tratamenduak jarraitu bitartean, kontuz ibili behar da; botika horien artean, besteak beste, antibiotikoak, lo egiteko pilulak, depresioaren kontrakoak, antiseptiko lokal edo orokorrak daude, hauek erradiazioen aurreko sentikortasuna areagotzen dute, hala nola kosmetikoak.

Ondorioz, kontuan hartu behar dira honako neurri hauek:

- 1) Saioan egon bitartean, beti erabili behar dira babesteko betaurrekoak.
- 2) Ez sartu bustita beltzaran jartzeko gailuan.
- 3) Kendu ondo kosmetikoak saioa hasi aurretik eta ez jarri inolako eguzki-iragazkirik.
- 4) Botikak hartzea eskatzen duten tratamenduak jarraitu bitartean, ez egin saiorik. Zalantza izanez gero, galdetu sendagileari.
- 5) Ez hartu eguzkia eta ez egin saiorik egun berean.
- 6) Utzi berrogeita zortzi ordu lehen bi saioen artean.
- 7) Arraitu iraupenarekin, saioaren bizitasunarekin eta lanpararen distantziarekin loturiko jarraibideak.
- 8) Joan sendagilearengana azalean babak, zauriak edo gorriuneak agertuz gero.

6.11. Termak erabiltzeko arauak:

6.11.1. Hamabost urtetik beherakoek ezin dituzte termak erabili. Hamabost eta hamazazpi bitartekoek, ordea, erabili ahal izango dituzte, baina heldu batekin batera beti.

6.11.2. Ere erabili behar da ontzietan, ur-oheetan eta jacuzzian.

6.11.3. Osasunaren alde, ezin izango dituzte termak erabili gaitz infekzioso edota kutsagarria dutenek.

6.11.4. Zirkuituetako urratsei jarraitzea gomendatzen da.

6.11.5. Jarraian 10 minutu besterik ez eman jacuzzian, ur-oheetan, ohe termikoe-tan eta erlaxazio aldean.

6.11.6. Beharrezkoa da xukadera erabiltzea saunan eta etzaulkietan ezarri edo etzatzeko.

6.11.7. Ez ozenegi hitz egin, den-denen atsedean eta lasaitasunaren alde.

6.11.8. Bete itzazue langileen gomendioak.

6.11.9. Aholkatzen diegu erabiltzaileei instalazioak erabili aurretik osasun-azterketa egin dezatela.

6.11.10. Derrigorrezkoa da instalazioetan sartu aurretik, dutxa hartzea. Hortaz, krema edo makillaje orbanak eta hondakinak kendu beharko dira.

6.11.11. Ezin da uretan gelik, gatzik, xaboririk edo antzekorik sartu. Bestela, ura kutsatu dezake eta erabiltzaileak ere kaltetu daitezke.

Sauna eta lurrun-bainua erabiltzeko arauak

6.11.12. Ez erabili ez bata ez bestea digestioa egin bitartean.

6.11.13. Ez erabili, halaber, ez bata ez bestea, haurdun edo hilekoarekin bazaude.



6.11.14. Era berean, ez dira egokiak hipotentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, barizeak, eta arterioesklerosia dituztenentzat, ez eta edari alkoholodunak edo janari ugariak hartu ostean ere.

6.11.15. Ez badakizu hartzea komeni zaizun edo ez, galdetu mediku bati.

6.11.16. Galerazita dago batean zein bestean sartzea aldean objektuak edo osagariak (eraztunak, eskumuturrekoak, zintzilikarioak, etab.) eramaten.

7. PISTEN ERRESERBA

7.1. Erreserba da erabiltzailea edo erabiltzaile-talde baten titulua instalazio edo ekipamendu jakin bat erabiltzeko aukera ematen duena.

7.2. Erreserbak, egiten diren unean bertan, ordaindu behar dira eta ez, instalazioak erabiltzeko orduan.

7.3. Erreserba guztiek kirolari kopuru jakin bat dute, erreserbaren prezioaren barruan daudelarik. Kirolari- kopuru hori ezarritako muga baino handiagoa izanez gero, pertsonako erreserba —eskaera independente bat ordaindu beharko da. Nolanahi ere, jabetzak ezarritako gehienezko plaza-kopurua ez du inolaz ere gailentzerik izango.

7.4. Erreserbak egiteko autosalmentarako makinak ondoko instalazioetan daude (Pando Aisia, Txurrukako igerilekuak, Zubi Alde kiroldegia eta Los Llanos Kirolgunea). Internet bidez ere egin daiteke erreserba.

7.5. Webgunearen edo apparen bidez erreserbarik egin nahi izanez gero, alde zurretik erregistratu egin behar da, sarbidea izateko PINa lortze aldera. Erregistratzea webguneari egin behar da.

7.6. Behin erreserba eginda, 30 minutu daude gehienez bertan behera utzi ahal izateko. Aldi hori igarota, ezin izango da aldaketarik egin eta halaber, ez dago erreserba bertan behera uzterik, aldatzerik, ez eta horren dirua itzultzea eskatzerik ere. Erreserba erabili ezean, erabiltzaileak ez du inolako eskubiderik zenbatekoa itzul diezaioten.

7.7. Erreserba hilekoa edo unean unekoa izango da.

Hileko erreserbak:

Hileko erreserba, erreserba egin nahi den hilabetea baino lehenago egin behar da, hilabete haren azken astelehenean, hain zuzen ere, 8:30etatik aurrera edo aurrez ezarritako datan.

Erreserba hilabete osorako da, ordu eta astegun finko baterakoa, hain zuzen ere.

Baimenduta dago erreserba egitea, gehienez asteko bi orduz jarraian instalazioko eta erabiltzaileko.

Unean uneko erreserbak:

Unean uneko erreserbak hileko erreserbak egin eta biharamunean egin daitezke.

Gehienez, instalazioko eta erabiltzaileko astean bi orduz erreserba daiteke.

7.8. Erreserba egin duen titullarrak pistan egon beharko du erabiltzeko unean.

7.9. Erreserba izanda ere, ezin bada instalazioa erabili Demuporsaren eragozpenengatik, erabiltzaileak eskubidea du itzulketaren zenbatekoa jasotzeko edo aldatzeko 10 egun baino gutxiagoko epean.

7.10. Entrenamendu, lehiaketa edo bestelakoetarako pista-erreserba idatziz egin beharko da, dagokion datu-orria betez.

7.11. Halaber, igerileku, areto edo beste ekipamendu batzuen erreserba egiteko, dagokion idazkia bete beharko da.

7.12. Erreserba egiteak sorrarazi ditzakeen arazoak edo ustegabekoengangatik ordutegiak aldatzea edo bertan behera uztea direla kausa, Demuporsak eskubide osoa du beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak edo bertan behera uzteak egiteko. Hartara, erreserbako zenbatekoa interesdunari itzuli beharko lioke edo erreserbak alda litzake, data eta ordua aldatuta.



8. APARKALEKUA

8.1. Hasierako bi orduak doakoak dira abonamendua dutenentzat eta ikastaroetan daudenentzat. Deskontu hori baliatzeko, karnetarekin sartu behar da aparlekura; aparkalekuko tiketarekin sartuz gero, berriz, ez da deskontua aplikatuko.

8.2. Erabiltzaileak behin tiketa ordainduta, 10 minutu izango du irteteko. Denbora-tarte hori igarota, dagokion tarifa berriro ezarriko zaio.

8.3. Ixteko ordua heltzen bada eta ibilgailuren bat aparkalekuan oraindik badago, aparkalekua itxiko dute ibilgailua barruan dagoelarik. Ibilgailuaren jabeak aparkalekuko egonaldi osoari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du.

9. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

9.1. Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzeak arau-haustea dakar. Hori dela eta, Demuporsaren organo eskudunak zigortu ahal du.

9.2. Instalazioetako arduradunek behar bezalako jokaera erakusten ez duten erabiltzaileak ohartarazteaz gain, instalazioetatik bertatik ere kanporatzeko eskubidea dute. Ondoren, instalazioko Demuporsaren arduradunari horren berri emango diote.

9.3. Demuporsako instalazioetan, ekipamenduetan eta materialetan nahi gabe suerta daitezkeen kalte pertsonalak ez dira ez inputagarriak ezta Demuporsari eskatzeko modukoak ere izango salbu eta ardura hura duten beharginen erruz edo zabakarke-riaz bada edota instalazio edo materiala egoera txarrean egotearen ondorioz bada.

9.4. Hutsegite-motak

Hutsegite oso larria:

- Demuporsaren edo hirugarren batzuen ondasunak lapurtzea edo lapurretan komisia izatea baldin eta lapurtua hirurehun (300) eurotik gorako baliokoa bada.
- Hamabi (12) hilabetetan hiru hutsegite larri egin izana.
- Udalaren instalazioetan eskola partikularrak ematea edo edozein merkataritza-jarduera egitea baimenik gabe.

Hutsegite larria:

- Eragin kalteak fede txarrez edo zabarkeriaz lokaletan, instalazioetan edo materialetan. Kalteok konpontzeagatik 100-299,99 euro bitarteko zenbatekoa ordaindu beharko da.
- Jendea iraindu edo jazarri.
- Hiru hutsegite arin egin izana 12 hilabeteren buruan.

Hutsegite arina:

- Heziketa txarrekoa izatea beste erabiltzaile batzuekin edo instalazioetako langileekin. Halaber, gure oinarrizko kulturarekin eta heziketa orokorrarekin bat ez datozen portaerak eta jokamoldeak ere hutsegite arintzat joko dira. Are zigortuagoak ere izango dira nahita zerbitzua bera eragotzi edo zaildu egiten dutenak.
- Era berean, egindako kalteak baloratzeko orduan, 99,99 eurotik gorakoak ez bada.

9.5. Zigortu egingo dituzte erabiltzaileak honi jarraiki: instalazioetako langileei aurre egiten dietenak edo haien oharpenei jaramonik egiten ez dietenak, instalazioak eta materiala bere helburuarekin erabiltzen ez dituztenak, hau da, nahita edo fede txarrez lokaletan zein instalazioetan kalte egiten duen oro, hutsegitearen larritasunari eta kaltearen ordainari begira. Zigorra ondoren azaltzen denaren arabera izango da:

- Administrazio Kontseiluak hutsegite oso larriak zigortuko ditu inguruabarrak aintzat harturik eta lehenik, interesdunekin elkartuta. Zigorrak hauexek dira: eragindako kaltearen birjartze ekonomikoa, abonatua izateari uztea eta sei (6) hilabetetik urte batera bitartean instalazioak erabiltzeko debekua.
- Hutsegite larriak Presidenteak zigortuko ditu inguruabarrak aintzat harturik eta lehenik, interesdunekin elkartuta. Zigorrak hauexek dira: eragindako kaltearen bir-



jartze ekonomikoa, abonatu izateari uztea eta hilabete batetik (1) sei hilabetera bitartean instalazioak erabiltzeko debekua.

- Hutsegite arinak Presidenteak zigortuko ditu inguruabarrak aintzat harturik. Lehenik, interesdunekin elkartuko da, eragindako kaltearen birjartze ekonomikoa egingo da, abonatu izateari utzita eta zazpi (7) egunez instalazioak erabiltzeko debekua.

10. AZKEN XEDAPENAK

10.1. Zerbitzu jakin batzuen erabilerak luzapen handiagoko artikuluko osagarri bat eska dezake, erabiltzaileek hobeto ulertze aldera.

10.2. Araudi honetan islatzen ez diren balizko kasuak lehendabizi, Demuporsaren teknikariek interpretatu eta ebatzi ere egingo dituzte.

10.3. Araudi honen onspena eta aldaketak, epean horrelakorik balego, hala eskatzen badute, Demuporsaren Administrazio Kontseiluak, lehenik eta behin, onartuko ditu bere Presidenteak eskatuta. Ondoren, iragarki-taulan argitaratuko da eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. 30 egunez jendaurrean egon ostean eta horrelakorik balego, alegazioak aurkeztuta eta ebatzita, osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da indarrean jarri aurretik.

10.4. Araudi hau indarrean jarriko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Legearen 70. artikuluko 2. atalak dioenarekin bat etorritik. Bere indarraldia mugagabea izango da.

10.5 Araudi hau erabiltzaile zein abonatu guztien eskuragarri egongo da, haiek eskatuz gero.

Portugaleten, 2017ko urtarrilaren 5ean.—Demuporsaren Presidenteak, Iker Villalba Batalla